

Euskal Antzinate Berantiarraz eta Lehen Ertaroaz

JOSEBA INTXAUSTI*

Ondoren datozen orrialdeok argitalpen baten ingurutik edo berorren aitzakiarekin datoz (1), eta egokiera horrek aukera ematen dit —historizale Ertaroan ezberzitu honi— Historiaren muga urrunetan gelditu ohi zaizkigun gure Antzinate Berantiarraz eta Lehen Ertaroaz zerbait esateko. Baina, hasteko, permiti bekik oroitzapen pertsonaletatik ekitea.

Espainiako Unibertsitateak Histori ikaskizunetako egitaraua Aro bereizietan banatu eta historilarigaioi “curriculum” akademikoa horrelaxe —Aroka berezilari izanik— burutzeko abagunea eman zigunean, hautabide hura gure jakin-min historikoen test bat gertatu zen ikasleontzat: Nork zer hautatuko zuen? Nire ikaskideen artean, hiruzpalau izan ziren Antzinatea joan zirenak, bost bakarrik Ertarora, berrogeiren bat Historia Moderno eta Garaikidera (1966-67). Urte haietako gazteon interesak ispiatzen zituen horrek, noski.

Geroztik Umberto Eco ere pasa da guretik, eta arrazoi ez ezagunegiengatik Ertaroak hurbiltasun berria irabazi du, historilarien artean ezezik, irakurle arruntetan ere. Ertaro europarra aro aberats eta erakargarri bilakatu da hiritar soilentzat, eta noizbehinka ez zaigu falta telebista eta komunikabideetan garai haietaz diharduen eleberri interesaturen baten berririk. Giro horretan historilari ertarozaleen lanak loraldi berria eza-gutu du gizartean.

1. EUSKAL ERTAROA: HISTORIOGRAFIAREN ALDARTEAK

Horrelakorik jazo izan da, oro har, historiografiaren aldarte eta gaihobespenetan ere: Aro, lurralde, erakunde edo aztergai historikoez dutela beti garapen-erritmo bera izan, eta hori, botereak eta gizarte-indarrek jarri edo ukatu dituzten interes eta arreten arabera suertatu izan dela batez ere, gaien beren garrantziaren arabera baino.

Gureari dagozkionetan ere, historiografiak bere osoan ez ditu izan beti garapen-erritmo sostengatuak eta aztergai-alor ezberdinen arteko oreka

* Historiagile eta Euskaltzaindia-ko urgazlea.

(1) LARRAÑAGA ELORZA, K. (1992): *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. (Itzulpena: Xabier AGIRRE. Egileak berrikusita).

zainduak. Azken mendearen hondarretan eta honetan, gerrate aurretik, izan zuen Ertaroak K. Etxegarai edo A. Kanpion bezalako maitale eta ikertzaile saiaturik (2), baina sarrienik batipat Aro Moderno-Garaikideetako euskal erakunde galdu-berrien jatorburuen bila ahalegindu ziren ikertzaileak. Orduan ere, une hartako premia eta larrie erantzunez burututako lanak.

Gerraondoko giro zailean (1937-1960), batez ere J.M. Lakarra nafarra gogoratuko nuke gure Ertaroaz Unibertsitate-geletatik kanpo ere eta ahots entzungarriago batez hitz egiten hasi zitzaigun ikertzaile bezala (geroztik hain aipatua izan den Donostiako bere hitzaldiarekin, 1956) (3). Horren aurretik eta ondoren argitara emandako iturri eta monografiak osatu zuten jakitun honen lana (4), eta, azkenik, ezagumendu haiek irakurlego zabalago baten eskuetara ekartzeko bere heldutasunean Nafarroako historiak eman zizkigun sintesi handia eta labur trinkoagoa gogoangarriak dira (5).

Denbora-eremu mugatuago batean eta Ertarotik irten gabe, Mañaricua (Bizkaia eta historia erlijiosoak) (6) edo J. Arbeloa-ren lanak (Nafarroaren jatorburuak) (7) bezalako banakaren bat ez zen falta izan urte haietan, eta tartekamarteka baita iturrien (kartulario, kronika, etab.) edizio kritikoak ere (Ubieto Arteta-renak, adibidez) (8), hurrengo urteetan zabalduz joan direnak (9). Guzti horrekin batera, testuinguru zabalagoan ondoko Aroez ari ziren batzuek ere arretaz begiratu izan zituzten euskal Ertaroaren azken mendeak bereziki (10). Hortaz,

(2) Gogora, adibidez: ECHEGARAY, C. (1895): *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media*. San Sebastian: Establ. Tip. de F. Jornet. CAMPION, A. (1896...): *Euskariana*. (Bilduma). eta: (1915): "Nabarra en su vida histórica", in: (1915): *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Barcelona.

(3) LACARRA, J.M. (1957): *Vasconia medieval. Historia y Filología*. San Sebastian: Diputación Provincial.

(4) Ik. MARTIN DUQUE, A. J. (1990): "Lacarra y de Miguel, José María", in: *Gran Enciclopedia Navarra*. Pamplona: CAN. s.v.

(5) LACARRA, J.M. (1972-1973): *Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*. Pamplona: CAN. LACARRA, J.M. (1976): *Historia del Reino de Navarra en la Edad Media*. Pamplona: CAN.

(6) Euskal Herriaren kristautzeari eta historia erlijiosoari zegozkionak: MAÑARICUA, A. E. de (1950): *Sta. María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya*. Bilbao. MAÑARICUA, A. E. de (1951): *Las nuevas diócesis de Bilbao y San Sebastian y sus antecedentes históricos*. Salamanca. MAÑARICUA, A. E. de (1964): "Obispos en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta fines del siglo XI", in: (1964): *Obispos en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la diócesis de Vitoria (28 de abril de 1862)*. Vitoria-Gasteiz: "Victoriensia".

(7) ARBELOA, J. (1969): *Los orígenes del reino de Navarra (710-925)*. San Sebastián: Ed. Auñamendi.

(8) Ubieto Arteta-k (lanaren parterik handiena Valencia-tik egin zizun gainera) zerrenda ugaria eman zuen argitara: Albelda (1960), S.Juan de la Pena (1961-62), Naxera (1966), Donemiliaga (1976), Sto. Domingo Galtzadakoa (1978).

(9) Adibidez, MARTIN DUQUE, A.J. (1983): *Documentación medieval de Leire (siglos IX-XII)*. Pamplona. Edo: LACARRA, J.M.; MARTIN DUQUE, A.J. (1986): *Colección diplomática de Irache*. Pamplona.

(10) Ik. MONREAL CIA, G. (1974): *Instituciones públicas del Señorío de Vizcaya hasta el siglo XVIII*. Bilbo. Bizkaiko Erakunde Publiko ertarotarrei buruzko ikuspegi orokor eguneratuena berau dugu, liburuak Aro Modernoaz berezikiago badihardu ere.

egindako lanaren emaitzari begiratu bat eman nahiko liokeenak badu non miatu (11).

1965-1980 urteetan, inondik ere, euskal ikerkuntzan badirudi Aro Garaikideaz ziharduen historiografia nabarmendu zela batipat gure argitalpenetan: egiten zen lanetara metodologia berrituak iritsi zirelako, batez ere unean uneko kezka sozialei laguntzeko ere bazetorrelako, eta, edozein gisatan ere, aurreko urteetako hutsune nabari eta ezarria gainditu nahi zelako. Horrek ez du esan nahi, ordea, zulo guztiak aski bete direnik (12), historiografiaren nolabaiteko protagonismo soziala urte horietan Aro Garaikidera lerratu zitzaigula baizik (13).

Eta oraintsu, azken urtetxo batzuetatik hona (1982etik aurrera edo), Ertaroarekiko ikerlana berriz ere bere indar historiografiko erlatiboan gora dator (14). Euskal Herri osoaren historiari (15) nahiz Nafarroa (16), Bizkai (17) edo Arabaren (18), eta Donostia (19) eta Gasteiz-en (20) historia ertarotarrari eskaini zaizkien Kongresuak lehentxoagotik zetorren iker-olatuaren agerpen gisa bezain inguruko edo ondorengo ikaslan berrien eragile bezala berdintsu ikus litezke.

Testuinguru horren barnean azken hamarkadan gora egin dute lan monografikoek ere, ikertzaile helduagoen lehendikako lanak

(11) 1982.etik edo aurrerako goraldi ertarozalea baino lehen eskainitako balioespen orokorra: GARCIA DE CORTAZAR, J.A. (1977): "Los estudios de tema medieval vascongado: un balance de las aportaciones de los últimos años", in: *Saioak*, i, 1977, 181-201. or.

(12) Ik. ARBELOA, V.M. (1987): "Historia Contemporánea", in: *I Congreso General de Historia de Navarra*. Pamplona: Príncipe de Viana. I, 235. or.: "No por nada, como luego diré, la historia escrita de Navarra contemporánea apenas existe. [...] Pero si todo esto puede ser cierto, lo es también que desde hace unos pocos años la historia escrita de Navarra contemporánea está dejando de ser la niña fea, el puente de los asnos o el triángulo de las Bermudas, como ustedes prefieran. Lo que hace muchos años ya algunos soñamos y quisimos decididamente está siendo realidad".

(13) Ik. balantze ez oso bat: "Euskal Historiografia" deritzan ale monografikoa, historiografia demografiko (Urrutikoetxea, Artzamendi), ekonomiko (J. Agirreazkuenaga), sozial (Majuelo Gil) eta politikoari (J. Apalategi) eskainitako lanekin: *Jakin*, 1989, 55. z.

(14) ORELLA, J.L. (1993): "Bibliografía medieval del Pueblo Vasco (1982-1992)", in: *RIEV*, XXXVIII, 1993, 225-300. or.

(15) (1988): [III] *Euskal Mundu-Biltzarra--II Congreso Mundial Vasco. Euskal Herriaren Historiari buruzko Biltzarra--Congreso de Historia de Euskal Herria*. Donostia: Txertoa. 2 lib.

(16) (1988): *I Congreso General de Historia de Navarra. Pamplona 22-27 de septiembre de 1986. 3. Comunicaciones. Edad Media*. Príncipe de Viana, 1988. Kongresu bereko ponentzien artean, Sayas eta Martín Duque-renek zuzenean dute zerikusirik hemen iruzkinduko dugun Larrañaga Elorzaren aipatu liburua ukitzen duen garaiarekin.

(17) Lehenagotik: (1972): *Edad Media y Señoríos: El Señorío de Vizcaya. Simposium que tuvo lugar en la Biblioteca Provincial de Vizcaya, los días 5, 6 y 7 de marzo de 1971*. Bilbao.—(1978): *Formas de poblamiento del Señorío de Vizcaya durante la Edad Media. III Simposio que tuvo lugar en la Biblioteca Provincial de Vizcaya, los días 21, 22 y 23 de marzo de 1975*. Bilbao.—Berrikitan: (1988): *Congreso de Estudios Históricos. Vizcaya en la Edad Media*. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.

(18) (1985): *Formación de Alava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982). Congreso de Estudios Históricos*. Vitoria-Gasteiz.

(19) *Donostiako Forua eta bere garaia. Donostia, 1981eko Urtarrilaren 19tik 23ra*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

(20) (1982): *Vitoria en la Edad Media. Congreso de Estudios Históricos*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Ikaskuntza.

borobilduz (Mañaricua (21), Lacarra (22), Caro Baroja (23), García de Cortazar (24), Portillas (25), etab.), nahiz ikertzaile gazteagoen ekarpenekin (Rouché (26), Monreal Jimeno (27), Azkarate (28), etab.). EHUK nahitaez sortu behar zituen ikertzaile berriak eta, dagoeneko, nabariak dira luma emankor batzuen lorpenak, Kongresuetan noski, baina baita han-hemengo banakako lanetan ere (29).

Bestalde, monografia guztiz berezitu nahiz berezilarientzako Kongresuetan eman ohi diren lanen ondoan, irakurle apalagoarentzat ere sortu dira Ertaroaz sintesi-argitalpen landuak ere, historilari orokorrenak (30) edo berezilarien eskuetatik zuzenean datozenak (31), edo, batzuetan, maisu ezagunekin batera inguruko lankide gazteek moldatutako sintesi-lan baliagarriak (32).

Ez dago zalantzarik: euskal Ertaroaz gure ezagutzak aurrera egin du, bai iturrien ezagumenduan eta baita beroriekin batera egin den analisi historikoan ere. Baina Ertaro osoaz, bere mende guztiez, tamaina eta kalitate berean eraman al da heldutasunera jakitate hori?

Historiografiarik oparoena XII-XIII. mendeetatik aurrerakoaz

2. LEHEN ERTAROAZ HISTORIOGRAFIA URRIA

(21) MAÑARICUA, A.E. de (1984): *Vizcaya, Siglos VIII al XI. Los orígenes del Señorío*. Bilbao: Caja de Ahorros de Vizcaya. (Partez behintzat lehendik emandako lanen moldaketa berritua).

(22) LACARRA, J.M. (1983): *Investigaciones de historia navarra*. Pamplona: Ediciones y Libros S.A.. Edo oinarritzko berrargitalpen bat [1946-1952], adibidez: (1981-1985): *Documentos para el estudio de la reconquista y repoblamiento del valle del Ebro*. Zaragoza.

(23) Arabari buruz bereziki azken hamarkadan argitara emandako lanekin.

(24) Donemiliaga eta Errioxari buruzko lanetatik hasi (1969 eta hurr.) eta gero herrialde ezberdinei eskainitako lanekin jarraituz (Bizkaiaz, 1978, 1981, 1982, 1983; Arabaz, . 1981, 1982, 1983, 1988; Gipuzkoaz, 1982) nahiz hiru herrialdeekiko baterako lanak eskainiz (1977-1988)

(25) PORTILLA, M. (1978): *Torres y casas fuertes en Alava*. Vitoria: Caja de Ahorros Mun. de Vitoria. 2 lib.

(26) ROUCHE, M. (1981): "Les relations transpyrénéennes du V^e au VIII^e siècle", in: (1981): *Les communications dans la Péninsule Ibérique au Moyen Age*. (Colloque tenu a Pau, 1980). Paris.

(27) MONREAL JIMENO, L.A. (1985): *Eremitorios rupestres altomedievales. El Alto Valle del Ebro*. Deustua (Doktor-tesia).

(28) Aipatuko den doktore-tesiaz aparte, beste hainbat lan, zera adibidez: AZKARATE, A. (1987): "Kristatasunaren sarrera Euskal Herrian: eztabaida historiografikoa zertan den", in: (1987): *Euskal Herriaren Historiaz*. Bilbo: EHU. III, 25-50.

(29) AZKARATE GARAI-OLAUN, A. (1988): *Arqueología cristiana de la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

(30) Aipatuko ditugun Narbaitz-en bi argitalpenak, esate baterako.

(31) Adibide gisa gogora bedi: *Alava en sus manos* (1983, Vitoria-Gasteiz: Arabako Kutxa) obraren hirugarren liburukian Ertaroaz eman diren sintesiak: GARCIA DE CORTAZAR, J.A. (1983): "Los oscuros comienzos. La Alta Edad Media", 73-104. GONZALEZ MINGUEZ, C. (1983): "De la formación de las villas a la formación de la provincia", 105-136.

(32) GARCIA DE CORTAZAR, J.A.; ARIZAGA, B.; RIOS, M.L.; DEL VAL, M.I. (1985): *Bizcaya en la Edad Media*. Donostia: Haranburu Altuna. 4 lib. Sintesi-testuinguru berean dago beste hau ere, gero berezikiago gogoratuko den Lehen Ertaroaz diharduena: GARCIA DE CORTAZAR, J.A. (1983): *Vizcaya en la Alta Edad Media*, Bilbao: CAV. (*Temas vizcaínos*, n. 105).

diharduena izan da; X-XI.ek ere izan dute gisa murrizagoan beren historilaririk, Nafarroan gehiago, noski, Hegoaldeko beste Hiru Probintzietan baino. Baina zer esan, ordea, V.etik X.era doazen Lehen Ertaroko gizaldi betiere gutxi ezagun haietaz?

Ofizioz edo gustoz urrun geratzen zirelako, euskal historiaz interesatuok sarritan, historilari gutxiren ikaslan urriekin aurkitzen ginen orain urte batzuk: oso bakanak ziren eskura genituenak. Lehen-lehenik, J. Jurgain-ekin egiten genuen topo (33), izan ere —argitu gabeko arrazoi ezkutuengatik edo— Iparraldetik iristen zitzaizkigun Goi-Ertaroarekiko lehen albiste aberatsenak. Garaiko iturriak bisigotuenak baino frankoenak ugariagoak zirelako ote?, galdetzen zion batek bere buruari. Geroxeago, beste historiari jakin baten eta haren idazlan solteen aditzera ere izango genuen: J.-F. Bladérena. Hau ere aurreko mendeko azken hamarkadetan loratua (34).

Baina, oro har, Bladé eta Lehen Ertaro hartaz zerbait esandako ikertzaile handienak sobera urrun geratzen zitzaizkigun irakurle herritarroi, eta zerbait hurbilago eta berririk Piarres Narbaitz-ek eskaini zigun, berriz ere ipartarrentzat beti maitea izan den esparru honetan (35). Ikertzaile berezilarien eta beste irakurleikastunon arteko hutsartea betetzeko Hegoaldean B. Estornes Lasak egin zuen sintesi-lana (36).

Berezilari haien eta besteeen gorabehera, beti iruditu izan zait hamarkada luzetan ofizio-ofizioko historilariak ez-ikusitako egiten zietela mende ilun haiei; baina bapatean, lehendik ere iradokitako hipotesietatik (Grosse, 1947), A. Barbero eta M. Vigil agertu ziren garai berei begiratu zoli bat eman eta historilari aitortuen pentsamoldeak astinduz (1965) (37).

Handik hona, orduan idatzitakoaz gaur arte luzatu da eztabaida bizi bat; ondorioz, ez da modurik egon euskaldunen garai haiei berriz ere ez-ikusitako egiteko. Blázquez-ek birretsi egin zuen Barbero/Vigil-en tesia (Euskal Herriari erromatar eta ondokoek *limes* bat ezarri behar izan ziotela, alegia) (38), berrikitan tesia ñabartuz joateko (1989)

(33) JAURGAIN, J. (1898-1902): *La Vasconie*. Pau. (Añamendi-n gaztelaniara itzulita eman zena: (1976-78): *Vasconia. Estudio histórico-crítico, s. VI-XI*. Donostia: Añamendi Argitaldaria. 2 lib.) .

(34) Akitania, Gaskoinia eta Baskoniari buruz hainbat lan interesgarri eman zuen aldizkari eta liburuetan, mende hartako azken hamarkadan. Hona hiru adibide: (1891): "La Vasconie cispyréenne jusqu'à la mort de Dagobert"; (1891): "L'Aquitaine et la Vasconie cispyréenne depuis la mort de Dagobert I jusqu'à l'époque du duc Eudes"; (1891): "Les vascons espagnols depuis les dernières années du VI^e siècle jusqu'à l'origine du royaume de Navarre".

(35) NARBAITZ, P. (1975): *Le matin basque au Histoire ancienne du peuple vascon*. Paris: Librairie Guénégaud. Kasik liburuaren erdia V-IX. mendei eskaintzen zitzaien.

(36) ESTORNES LASA, B. (1978): *El Ducado de Vasconia*. Donostia: Añamendi Argitaldaria. (*Historia del Pueblo Vasco*-ren barnean).—ESTORNES LASA, B. (1979): 476-828. Epoca vascona. Donostia: Añamendi Argitaldaria.

(37) 1965ean: "Sobre los orígenes sociales de la Reconquista: cántabros y vascones desde fines del Imperio Romano hasta la invasión musulmana", in: *Boletín de la Real Academia de la Historia*, 1965, CLVI/II, 271-339.

(38) Blázquez-en lanaren lehen testu alemanean (1980koa zen berau).

(39), hipotesi horren aurkarienak ere gogoan hartuz (40).

Eztabaida horren barruan, beranduago etorri da, bere titulu gutxi-asko komertzial eta zabalegia gorabehera, ia osorik Kristo ondoko lehen milakadari buruz diharduen liburu amerikar bat, Roger Collins-en *The Basques* (41), IparHegoaldeei, biei, begira idatzia.

Bibliografia horretan, ba, bostehun urtetako euskal historiaren nondik norakoak dira Garonatik Ebrorainoko tartean —Pirinioetatik ipar eta hegoaldeetan— historilariak eztabaida aski beroan bilatu edo definitu nahi dituztenak. Baina orduko Euskal Herriko gizartea ekintzetan ausart bezain hitzetan mutu ageri zaigu: ez du artxiboetan bere baitandiko aztarnarik utzi. Jakin dakiguna, ia osorik, arerio eta aurkari atzerritarrei zor zaie.

Horiek horrela, Euskal Herriaz ia osorik halabeharrez kanpotarren eskuetatik ditugun albiste horiek ezagutzeko argitara eman den K. Larrañaga Elorza-ren *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan. Materiale eta agiriak* liburua deskribatutako lanbide historiografikoen testuinguruan ikusten dugu.

Argitalpen trinkoa da berau: 264 orrialdetako testu xehea du, bai bildu dituen agiri historikoetan, eta are xehegoa multzoka eta bakoitzari egiten zaizkion oharretan. Materiale eta agiri hauek, lurralde-eremu jakin eta garai hautatu bateko histori iturri dokumentalak bildu nahi izan dituzte, gaur egun eskura ditugun edizio kritiko serioenetatik.

Argitalpen honek azken puntareneko historilari berezituarentzat ez, baizik euskal Antzinate Berantiarra eta Lehen Ertaroa ezagutu eta ikasten hasi nahi dutenentzako lan-tresna lagungarria izan nahi du. Izan ere, beste edizio kritiko haiek izan ohi dira berezilarientzat pentsatuak, eta oraingo hau bezalakoek, aitzitik, eskola-lanabes bezala dira batez ere erabilgarriak.

Hala ere, “batez ere” diot, zeren hau bezalako edizio txukun batek lehen pausotarako baino gehiago balioko baitie Irakaskuntza Ertaintetako irakasleei eta Unibertsitatean arlo hautatu honetan trebatu nahi duten gazteei. Euskal eskolaliburuaren artean pauso berri bat da berau. Beste bilduma-molde apalago batetik ikasita izanik ere (42), antzeman dezake batek honelako agiri-bildumak nolako zailtasunak izan ditzakeen: antzeman, eta eman zaizkion irtenbide txukunak estimatu.

Lehen begiratu batean —eta historilari ez berezituaren begiekin behatuz— argitalpenaren alde ezberdinak ongi zainduak izan dira:

(39) BLAZQUEZ, J.M. (1989): “El limes de Hispania en los siglos IV y V. Estado de la cuestión. Asentamientos de los *laeti* o gentiles en el valle del Duero”, in: (1989): *Nuevos estudios sobre la romanización*. Madrid: Ediciones Istmo. 617-641.

(40) Iku, adibidez: ARCE, J. (1982): *El último siglo de la España romana: 284-409*. Madrid: Alianza editorial. 67-69, 165-168.

(41) COLLINS, R. (1985): *The Basques*. New York: Basil Blackwell. (Gaztelaniazkoa itzulpena: (1988): *Los vascos*. Madrid: Alianza Editorial.

(42) UZEI (1987-1988): *Mendez Mende. Histori Agiritegia*. Donostia: Elkar.

3. LEHEN ERTAROAZ AGIRITEGIA

bibliografia zabala erabili da (iturrien ediziotan eta ikaslanetan), liburuaren edukinari egitura argi eta eguneko bat eman zaio, eta agiri bakoitzaren trataeran ongi begiratu dira iturrierreferentziak eta ohar historiko-historiografikoak.

Arretaz lotutako barne-zurajea du liburuak: bibliografia aurkeztean, laburdura eta siglak ematean, liburu-aipuak nonahi ere era finkatu batez egitean. Gure euskal edizioetan gutxitan egin ohi den modura burutu da lana, alde formal baina garrantzizko hauetan ere.

Aurkezpen honetan hiru kapitulu nagusitara bilduko nuke hemen esanda utzi nahiko nukeena: 1) Edukinen muga eta presentaera. 2) Obraren balio didaktiko-historiografikoak. 3) Edizioaren euskararekiko aldeak.

3.1. Edukinen mugak eta presentaera.

Liburuko edukinen muga Bergarako UNEDen lehendik abian jarritako proiektu batek definitu du (barruti espazio-tenporala + berorretan gogotan hartu nahi ziren alde historiko aztergarriak), eta guztiaren presentaera, berriz, batez ere arrazoi didaktikoek erabaki dute. Bi alde hauei buruz esan nahi nuke zerbait, aurretik obraren edizioaren historiaurrea gogoratuz.

3.1.1. Proiektu baten parte

Bergarako histori testuen argitalpen-proiektua aipatu dut, eta horretaz argibideren bat zor diot irakurlari. Proiektu haren urrats bat izango litzateke eskuartean dugun obra hau. Orduko plan orokorra definituta geratu zen bere garaian: J. Madariagaren bateratzaile-ardurapean zazpi liburukitan eman nahi zen euskal historia osoari buruzko agiri- eta materiale-bilduma izan behar zuen hark.

Argitara emandako lehen liburukiak zioenez, honela banatu ziren erantzukizunak: X. Larrañaga (Historiaurrea), K. Larrañaga (1. Antzinatea, 2. Ertaroa), J. Madariaga (Aro Modernoa), V. Huici eta J. Madariaga (Aro Garaikidea), F. Ugarte (Kartografia historikoa) eta J. Gil (Artea). Asmo hartatik (erdaraz eta euskaraz ematekoa, gainera), urak ez ziren kasu guztietan itsasoraino iritsi: Antzinateari zegokiona kaleratu zen (43), baita Aro Garaikideari zegokiona ere (44); azkenik, gisa berean, kartografia historikoari zegokiona (45).

Historiaurrea, Ertaroa eta Aro Modernoa geratu ziren, ba, proiektuan aurrera egin gabe; orain, urrats berri bat emanez, EHUK argitaratu du

(43) LARRAÑAGA ELORZA, K. (1988): *Euskal Herria Antzinatean: Materiale eta Agiriak*. Donostia/Bergara: Kriselu/UNED. (Argitalpen honi buruz autoreak egindako oharra ik: "Euskararen mesedetarako?", in: *Diario Vasco. Zabaliak*. 1989-03-02.

(44) HUICI, V.; MADARIAGA, J. (1989): *Euskal Herria Egungo Aroan. Materiale eta Agiriak*. Donostia / Bergara: Kriselu / UNED .

(45) UGARTE, F.M. (1989): *Kartografia [Euskal Herriari buruzko kartografia historikoa (1900 aurrekoa). Lehen hurbilpena]*. Donostia/Bergara: Kriselu/UNED. 2. lib. Tamala da proiektuak bere osoan eta euskaraz eta erdaraz aurrera ez egitea, izan ere euskal edizioa bide-erdian geratzeaz gain, erdarazkoa ez baita inon argitara eman. Tamala diot, zeren garrantzizko argibide eta informazio historikoak galtzen baitira horrela, Irakaskuntzara heldu gabe.

hemen komentatzen dugun Ertaroaren lehen parte hau, Antzinateaz egindakoari Lehen Ertaroarekin segida kronologikoa emanez. Ondokoak ez datozen bitartean, euskal Ertaroko testuei neurri apalago batean J.A. G. de Cortázar-enak eman liezaieke jarraipena (46).

Historia bere testuetan aztertuz irakatsi nahia guztiz nagusitu da Irakaskuntzan; erdaretako argitalpenetan garbi ageri zaigu joera hau, eta adibide hurbilik ez da falta (47). Gurean eta Euskal Herriaz oraindano dugun bildumarik egokiena beronek izan beharko luke, baina geroak esango du azken bururaino iristerik baduen. Beste gabe, ba, itzul gaitze iruzkindu nahi den oraingo argitalpena.

3.1.2. Barruti espazio-tenporala

Liburuan edukinari ezarri zaizkion mugek zerikusi zuzena dute, noski, proiektu osoko histori epekapenarekin, eta, horren arabera, obra honi zegokion barruti espazio-tenporalarekin. Baina baita korrante historiografiko baten ubidetik letorkeen histori ulerpen batekin ere: hau da, VI-X. mendeetako tarte horri ezaugarri eta datu berezgarri orokor propioak ikusi izan dizkieten artean egongo litzateke biltzaile-autorea, eta, ondorioz, obra honen kezka ardatza. Aro galdu bat ez, baizik definizio zaileko baina zinez berezgarriko baten aurrean egongo ginateke, bada.

-- Barrutiaren ezaugarri orokorrak

Liburuari prepeziozko sarrera egokia eman zaio, “Pirinio inguruaren mendebaldeko Komunitateak Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan (VI-X. mendeak)” tituluarekin (48), eta bertan mugatzen da liburuak begiztatu duen eremu espazio-tenporala (13-32. or.). Holakoetan egiten den aukerak ezagumendu historikorako “logikoa” izan behar du: ulergarritasun historikoari lagunduko diona, alegia. Horregatik, unitate historiko konprenigarri bezala “Pirinio-inguruaren mendebaldea” hautatzeaz arrazoiak eman beharrean sentitzen da, eta “aukera baten arrazoiak” aipatzen ditu, lehendik ere arrazoiok emanda dituela gogoratuz (49).

Erromatarrek eta idazle klasikoek, hementxe, Pirinio katearen isurialde bietan eta baita euskal mendietan eta agian kantauriarretan ere topatu eta deskribatutako unitate etniko-kultural euskoideak zuzenesten zuen, Antzinatean, Pirinio-mendebaldeko komunitateez hitz egitea. Eta ondoren, Lehen Ertaroan ere, eremu geografiko berebanean gertatu zen herri-etzanda orokor bat, bigarren une honetan komunitate guztientzat

(46) GARCIA DE CORTAZAR, J.A.; ARIZAGA, B.; MARTINEZ OCHOA, R.M.; RIOS, M.L. (1979): *Introducción a la Historia medieval de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*. San Sebastián: Editorial Txertoa.

(47) Ik. honetaz bizkaitar historilari ertarozaleak hitzaurrean esandakoa eta liburu osoan burututako bilduma, adibide bezala: GARCIA DE CORTAZAR, J.A. (1975): *Nueva Historia de España en sus textos. Edad Media*. Santiago de Compostela: Editorial Pico Sacro. 7-12.

(48) LARRAÑAGA 1992: 7-34. Hitzaurre honen harian doa, noski, ondoko azalpena.

(49) LARRAÑAGA 1988:11-15.

izendapen bat bera hedatuz, gainera: behinolako barduliar, karistiar eta aitrigoien aipiak desagertzeraino bisigotuekin, eta *Vasco* eta *Vasconia* etnonimoek dena estaltzeraino.

Izen bakar amankomun horren arrakastak eztabaida zahar berritu bat aztertzer darama autoreak, hain zuzen Aro honi dagokion historiografian oso bizirik egon dena eta garaiko fenomeno sozio-historiko ilun baten erdigunea: Akitaniaren eta Mendebaldeko lurraldeen balizko baskonizazioa. Eztabaidaren xehetasunak aurkeztu ondoren, ondorio honetara iritsi da historilaria:

Jatorrizko Baskoinek Barduliar, Karistiar eta Autrigoien lurraldeetan barrena ustez egindako lerradurak erabat ukatu gabe —garrantzi demografiko gutxiko lerradurak, halere, goian aipatutako arrazoiengatik—, gure ustez lerradura onomastiko hori beste ezeren aurretik izen baten generalizazio-fenomenoa izan zen, eta bere klabea erromanizazio edo germanismo inbaditzailearen aurkako erresistentzi jarrera baten generalizazioan eremu guztian barrena bilatu beharko litzateke, Baskoien izen zirelarik kanpokoen begien aurrean erresistentzi jarrera hori hobekien errepresentatu zutenak —agian beraiek izan zirelako etnia eta hizkuntzaz ahaide zituzten Ifar eta Mendebaldeko auzoen artean jarrera hori eragin zutenak— (50).

Gertakari orokor eta nagusi horren inguruan komunitateen azpi-batasun bat somatzen da. Hain zuzen, garaiko lekukotasunak —atzeritarrengandik datozkigunak, kasu honetan— erakusten digutena zera da: “lurralde zabal baten pertzepzio bateratu edo bateratzailearen kasu baten aurrean aurkitzen gara, atzerriko autore edo jendei zor zaiena, eta batera pertzibitzen den eremu hori bat dator, gutxi gorabehera, jatorrizko euskaroideari egotzi beharreko komunitate etnikoen agerpen-eremu prerromanoarekin” (26. or.). Itxuraz, ba, zilegi da ahaidetasun zaharren kontzientziak komunitate etniko horietan artean ere bizirik zirauela pentsatzea.

-- *Garaiko euskal barrutia barne-banatzen*

Dena den, mendeetan ereindako diferentziazio-faktoreak (aspaldiko indoeuropartzearena, hurbilagoko erromatartzearena) berriz ere indartuz joan ziren, Erromaren erorikoaren ondoko lehenengo baskoien indarberritze edo eztanda handia ahultzean (IX-X. m.). Batasun zabalaren barnean eskualdekako aniztasunek ere leku izan zuten, batez ere kanpoaldearekiko egokiera eta jarrera ezberdinek eraginda: bakoitzak gisa berezian erantzun baitziezaiekeen indarrean kanpotik zetozen kristautzeari eta kultura-gizartearen erronka erromantzaileari.

Vasconia zabalaren ertzetan bereziki erbestearekiko jarrera irekiagoek molde ezberdinetan uler eta praktika zezaketen erresistentzia (berriz ere, *saltus-a* eta *ager-a* beren jokabide ezberdinekin ageri zaizkigu). *Saltus-a* asimilazioaren aurkako erasoan

(50) LARRAÑAGA 1992: 24-25.

gogor mantenduko da, bere sustratu euskoide zaharrari guttiz atxekita; bigarrena, ordea, denboraren harian erromantzatua eta kristaua sentituko da geroz eta gehiago.

Behinolako *Vasconia* lauso eta bere baitango errealitateetan gutxi bereizi eta apenas ezagun hari, bigarren une honetan (IX-X. m.) barneko komunitate guztien lurralde amankomunean paraje jakinak agertuko zaizkio, pertsonaia zehazki izendatuak, bizieraz ezberdinak. Terminologia bera ere aldatzeraino: *Vasconia* desagertu egingo da, eta lehenik, bere erdigunea zuen lurraldean, *Nafarroan*. Zenbait eskualdetan etorkizuna ez da erresistentzian sentitzen, kanpoaldearekiko harreman-giro berrian eta eraikuntza berrietan baizik.

Ertaro berri baterako prestatzen ari ziren, nonbait, *Vasconia* zaharraren lurraldeak: “osagai etniko-arrazialaren aldetik, fisionomia gutxi-asko desberdinak izango duten lur-unitateak, hain zuzen, baina zeinetan norberatasun ezaugarri eta arrastoak (...) lehentasuna hartzen bait dute gutxiasko amankomunean dauzkatenen gainetik”. (28. or.).

—*Eremu erromantzatutak / “Euskal Herria”*: izanbide ezberdinak

Mendebaldeko Pirinio-ardatzaren inguruan, ipar-hegoaldeetako lautadetara zabaldua, bateraturik bizi izandako asimilazioaren kontrako aurkaritzak —germanismoaren, erromatartze ahulduaren nahiz islamismoaren kontrakoak, alegia— “*Vasconia* elemental edo protoplasmiko” hartan jarrera berri bati eman zion leku. Hain zuzen, jarrera-aldakuntza hauek mugatzen dute liburuak bistan duen historiaren epekapena.

Liburuan biltzen den agiritegiak, VI-X. mendeak besarkatu nahi ditu, denbora-mugapen hori eta berorren barne-epekapena aldakuntz prozesuaren lerro nagusietan jasoz. Hautatu den garaien abiapuntua nahiko argia da: Erromaren erorikoak agintzen du hune horretan, gertakariak hemen sortu zuen egokiera berriari duen garrantzia emanez: V. mendearen azkenetan hasten da, ba, hemen bildutako historia.

Epe-bukaerak, ordea, ez du muga-zehaztasun bera, baina milagarren urtearen inguruan eman liteke, Antso III.a Handiaren garaiko ekarpenak gogoan hartuz: Santiago-Bidea ireki da Europarako, monastegi-kolonizazioa abian da, *Vasconia* atzerritarren kokagune ere izan liteke *burgu* jaio-berrietan... Halako adin-heldutasun bat somatzen da piriniar erresuma gaztean (30. or.).

Bosthun urte haietako izanbidean (VI-X. m.), bi epealdi ezberdin bereizten dira: VI-VIII.etan elementu baskoinaren erabateko nagusigoa da daturik nabarmenena, aurreko mendeetako erromatartze-kristautze emaitza gutxi-asko finkatuak arriskutan jarriko dituen nagusigoa, eta betiere batasun-aurpegi bat erakutsi zuena.

Hurrengo mendeetan, ordea (IX-X.etan), urak han-hemen mugitu egin ziren, mundu sozio-kultural baskoniko berdinduan ezberdintasunak eta eskualde-norberetasunak azaleratzean. Herrialdeen izenak agertuko dira (*Ipuzcoa, Alaba, Bizcai, etab.*), edo eskualdeenak (*Degius,*

Berroza, Urdunia, etab.); batzuetan, etorkizun handia izango duten guneak izendatzeko ere bai (*Pampilona*); bestetan, toponimia xehea aurkeztuz.

Erromatarren garaian bezalatsu gertatu zen: “gens” bakoitzak bere nortasuna berreskuratu zuen, Euskal Herria mundura ireki zen (*patria christiana-n* leku bat hartuz), eta barne-berrikuntza handietara benturatuz (hiribilduen sorrera, erakunde publikoen berreraketa edo lurraldekatzea bizkortuz).

Horrela iritsiko zen *Vasconia* hura bigarren Ertaroko *Euskal Herria* izatera, alde batetik, eta, bestetik, garai bateko barruti hedatuaren ertzetan —sustratu euskoidearen gain— eremu erromantzatua sortzera, barruti haren iparhegoaldeetan.

3.1.3. Edukinen hautapena eta egitura

Esan bezala, Larrañaga-ren hau ez da kontaketa historiko bat, analisi historikorako iturri lekukoen eskola-lanabesa baizik, hau da: ikasgelan komentario-bidezko azterketa eta ikaslana egiteko testu idatzien bilduma.

Mundu guzti horri buruzko agiritegia aurkezteko liburu honek hartu duen edukin-egituraz esan nahiko nuke orain zerbait, histori azterkizun hautatuak zeintzuk izan diren begiraturaz, izan ere egon badauden agiri guztietatik hauta zitezkeenekin egin den hau zer den jakiteak autoreak zein histori molde bilatu duen ere erakutsiko baitigu.

Azterkizun diren agiriak, ugariak dira hemen (155 testu, hain zuzen) (51), eguzkialde literario guztietatik bildutakoak. Zertzelada guztiz emandako dokumentu-sinopsi batean ikus liteke gaiak zeri buruz eta nola hautatu diren (37-51 or.). Hona lauki batean edukinaren egitura tematikoa laburtua:

(51) García de Cortázar 1979-k, eremu txikiago (euskal Hiru Probintziak), baina epealdi askoz zabalago baterako (Ertaro osoa), 65 agiri eman zituen, asmo beretsuko aipatu bilduman. Cortázar-enean agiriak ez dute bestelako argibide lagungaririk, salbu sarrera orokorra.

I. Koordenatu geopolitiko berriak:

- A. Eremua, bisigotuen aurrez aurre (507-711). [1-12].
- B. Frankoekiko harremanak (507-751). [13-27].
- C. Eremu politikoaren aldakuntzak (VIII-X.m.). [28-89].
 - 1) Islam-aren aurrez aurre (714-1002). [28-39].
 - Hasierako erresistentzia.
 - Auzo-harremanak (c. 750-X.m.).
 - 2) Asturiek izandako harremanak (753-955). [40-50].
 - 3) Baskoinak eta mundu karolindarra (673-859). [51-89].
 - Baskoinak duke akitaniarraren inguruan.
 - Eremu baskoin-akitaniarra eta Karlomagno.
 - Karolindarren aurrean makurtzen.

II. Bizimoduaren alderdi desberdinak.

- A. Egitate geo-demografikoa. [90-155].
 - 1) Espantsio baskoina [90-95].
 - Novempopulanian eta Akitanian.
 - Ebro haranean eta Gaztelan.
 - 2) Kanpotiko ekarpen demografikoak. [96-99].
 - Astur-leondarra.
 - Arabiarrak?
 - Normandiarrak.
 - 3) Asentamendu-motak. [100-104].
 - Abeltzaintza eta laborantzazkoak.
 - Hiri-kultura zaharraren hondarrak.
- B. Errealitate ekonomikoak. [105-112].
 - 1) Abeltzaintza. [105-106].
 - 2) Abeltzaintza eta laborantza-paisajea. [107-108].
 - 3) Bestelako osagai ekonomikoak. [109-112].
 - Gatza.
 - Burdina.
 - Ortu-lana (Ebroalde islamizatuan).
- C. Hierarkia sozialak (protofeudalizazioa?). [113-116].
- D. Lurralde-egituraketa: espazio politikoaren birdefinizioa. [117-142]
 - 1) Baskoniako dukerria. [117-118].
 - 2) Ebro laraneko Banu Qasi-tarrak. [119].
 - 3) Iruñeko erresuma. [120-124].
 - 4) Goi-Aragoako konterriak. [125-128].
 - 5) Konterri arabar eta gaztelauak. [129-137].
 - 6) Bizkaiko konterria. [138].
 - 7) Jaurerri ipar-piriniarrak (IX-X. m.). [139-142].
- F. Forma mentalak. [143-155].
 - 1) Kultura piriniarra/erromatar-mediterraneanarra. [143].
 - 2) Kristautzea: erromanitatearen garraiari. 144-155].
 - Eliza bisigotikoarekin.
 - Eliza novempopulanoa merobingiarrekin.
 - Eliza karolindarrarekin.
 - Eliza astur-leondarrarekin.

Oharra: Parentesi artean eman ditugu agirien urtean, lehenengo partean, eta kortxete artean gai bakoitzari dagozkion agirien ordena-zenbakiak.

Gaurko historiografiaren begira-puntuetatik ordenatutako materialea da, beraz: demografia eta gizartea, ekonomia eta politika, garaiko pentsamoldeak baztertu gabe eta kristautzearen aspaldiko gure eztabaidakizunari hainbat langai eskainiz. Ikus daitekeenez —hautaturiko eremu geografikoari leial izanik— Iparraldea eta Hegoaldea, biak, daude arretaz zainduta, baina ordukoak, noski, hots, ondoko mendeeta nozituriko ertz-higaduren galerak ez dira ageri, artean.

3.1.4. Argibide osagarriak

Gai-edukin horrekin batera agiri-bildumaren jitea aurkezteko premiazkoa da dokumentuei eman zaizkien argibide osagarriak zintzuk diren jakin eta nola eratu diren ezagutzea.

Erran gabe doa, agiri bakoitzaren iturrien berri zehatza ematen dela beti, bai sinopsi orokorrean eta baita bakoitza ageri den lekuan. Arabieraz eman zitezkeen gutxi batzuk ezik (12, 28, 29, 33-36 zenbakidunak, adibidez), gainerako denek jatorrizko hizkuntza latina dute, eta horrelaxe daude emanda, latinez, lehenengo, ondoan euskarazko itzulpena bigarren zutabe batean dutela. Erabilera eroso eta ziurra segurtaturik dago, ba.

Testua bere jatortasunean eman ahal izateko betiere gaur egungo ediziorik onenak erabili dira: “Jatorrizko testu latinoak transkribitzerakoan erabili ditugun argitalpenak, onenak edo definitiboak ez badira ere nahitaez, komunitate zientifikoaren onarpen eta konfidantza merezi izan dutenak izan dira beti ere”, dio autoreak (32. or.).

Testu-zalantzarik zenetan, eta garantiazko beste edizioen bat aipatzea komeni bazen, halaxe egin da ohar bibliografikoan; baina, liburuaren helburu pedagogikoa gogoan izanik, *aldakin* testual posibleak biltzen ibili gabe, testuaren ulerpenak bestelakorik eskatzen ez bazuen behintzat (32. or.). Baina mugapen hauek gorabehera, agiri askori ematen zaion testuinguru historiografikoa da hemen azpimarragarriena, dakartzan datu osagarri eta argibide aberatsengatik.

Hauxe da, noski, autoreari lanik zail eta luzeena eskatu diona. Agiritegia, bistan dago ohar trinko hauetan, ez dela itsumustuan bildu, ordenatu eta argitara eman. Bakoitzaren zertzelada testualak, historiografian sortu dituen eztabaida nahiz zalantzak, edota ekarri dituen ziurtasunak, agiriz agiri argitan jartzen ahalegindu da autorea. Ez naiz nor egindako lan horren kritikari izateko; baina lan-seriotasunaren jitea berehala somatzen zaie orrialde hauei.

Premiazkoa zen, noski, ohar hauek prestatu eta ematea; uste dugunez, Unibertsitate-ihardunean (liburutegi on bat alboan dela, beraz) fruiturik onenak eman ditzake hain eroso eta erabilgarri gertatuko den liburu honek. Ezeren edizio kritiko izan nahi ez duen obra batean, biziki estimatzekoa da egin den lan gaitza, agirien ondotik kasu bakoitzari zalantza eta arazoak azpimarratuz —halakorik adierazi beharrik zegoenetan—, eta azterketarako argibide bibliografiko zehatzak eskainiz.

Horretan egin den lanaren berri begiratu batean jakiteko, ikus, esate baterako, Fredegario, Gregorio Tours-ekoa, Alfonsito III.aren Kronika

eta Lupori buruzkoak, edo bizimoduez diharduten testuei eskuzabalkiago eskaini zaizkienak (59-60, 75-76, 95, 102-104, eta bigarren partean: 135, 136, 138, 139, 141, 145, 148, 163. or. eta abarretan doazen oharpenak). Liburuko erreferentzi sistema ongi tratatuari esker, erabiltzaileak inolako eragozpenik gabe atera liezaieke oharrei beren etekina.

3.2. Balio historiografiko eta didaktikoak

Hona iristean, ohar pare bat, liburuari ikusten dizkiogun baliozko alde nagusienei buruz: balio historiografikoaz, lehenik, eta didaktiko-pedagogikoaz gero.

Arestian esan da zerbait gure Lehen Ertaroaz jasan dugun, eta jasaten dugun, iker-hutsuneaz. Historiografiaren berrikuntzan Ertaro osoan eta Modernoan ere aztertu beharreko asko baldin badugu, Lehen Ertaro hartaz areagokoak dira oraindik iluntasunak (liburu honek berak ere ongi erakusten du hori).

Eskasia horrelakoa izanik ere, gure Historiaren epealdi haren ezagutza hobea goa bat zabaldu nahi izateko bestelako arrazoirik ere ez da falta. Eskuarlean dugun epealdiaren azken mendeetatik hasita ondoko Tarteko Ertaro eta Berantiarlean jaio zen Aro Garaikideraino luzatuko zitzaigun “Euskal Herria”. Gero Industri Iraultza dator, eta gainerakoak, baina Euskal Herriaren ohizko ondare sozio-instituzionalaren erroak — lehen erro hurbilak — han zeuden, Lehen Ertaroan.

Liburu honetan ere nabarmentzen den ikuspuntu historiko honek badu muntarik gure iraganaren ulerpenerako, historilariak etengabe bilatu behar dituen “segidatasun/etendura” historikoen jokia ulertzeko alegia. Naziotasun guztien “esentziak” Historian bilatu eta egonkorki zaindu nahi izan dituen historiografiaren bidezidorretan galdu gabe (52), Euskal Herria “unitate historiko ulergarri” bezala hartzen badugu, gerokoaren argibide bila V-X. mendeetara ere hurbildu beharra dago, eta horretarako eztenkada bezala ere ikusiko nuke, ba, liburu honen argitalpena.

Eta bide beretik, liburuak duen eskola-zerbitzu asmoa aipatu behar da. Esan bezala, Irakaskuntzarako tresna da, horretarako pentsatu eta eratu

(52) Bestelako testuinguru batean eta geroko prozesu eta lorpen oso desberdinekin, baina garai beretsuko esperientzia bat jasoz, historilari zenbaitek “bisigotismoan” ikusi zituen “Espainiaren” lehen erro bereizgarri iraunkorrak (“nazionalak” esaten zuten): Histori filosoifiaren saiakeretan, ik. ORTEGA Y GASSET, J. (1922): *España invertebrada*. Madrid. Historilarietan: MENENDEZ PIDAL, R. (1947): “Los españoles en la Historia”, in: *Historia de España*. Madrid: Espasa-Calpe. SANCHEZ ALBORNOZ, C. (1956): *España, un enigma histórico*. Buenos Aires: Editorial Sudamericana. Honen kontrako bere ikuspide propiotik, A. Castro-k hainbat ideia zabaldu zuen: CASTRO, A. (1954): *La realidad histórica de España*. México: Ed. Porrúa. Ik., gainera, “En qué consiste la unidad y la identidad históricas de un pueblo” eta “El “nosotros” de las historiables colectividades humanas”, in: CASTRO, A. (1973): *Sobre el nombre y el quién de los españoles*. Madrid: Taurus. 168-178 eta 188-208. Honetaz A. Castro-ren pentsamendua laburtuz: ARAYA, G. (1983): *El pensamiento de Américo Castro*. Madrid: Alianza Editorial. 90-98. Unibertsitate espianoleko eskuliburu ezagun batean: G. DE VALDEAVELLANO, L. (1963): “Hacia Un primer Estado nacional: La España visigoda”, in: G. de VALDEAVELLANO, L. (1963): *Historia de España*. Madrid: Revista de Occidente. I, 271-365.

izan da. Uste dudanez, lehenik Unibertsitatean eman ditzake laguntza onenak, baina baita Batxillergoan eta UBIn ere, irakasle gogotsu eta informatu baten eskutik baldin badoa bederen. Tamala da, hala ere, honelakoak ez duela lan samurra izango beti, egiten diren oharrei probetxu gutzia ateratzen, sarritan beharko litzatekeen kontsulta-liburuen faltaz. Nolanahi ere, materiale hauetatik hainbat eta hainbat izango da erabilgarria. Eta ikasle gazteek ere —neurriren batean— historiako gure “mende galdu batzuk” eskuratzeko aukera izango dute.

Agiritegi hau irakasleen eskuetan jartzea arrunt beharrezkoa ikusten dut, baina beldur naiz Irakaskuntza Ertainetan liburu honen ondoko pauso pare bat eman gabe, ez ote den hau bide-erdian geratuko.

Obra hau burutzeko autoreak arakatu eta jaso dituen ezagumenduek eta orrialde hauetan erakutsi duen ordena argiak —lehendik horrelako baliorik erakutsita ez balu ere (53)— hurrengo urrats bat ematera eraman beharko lukete: kontaketa testual harildu batean garai horren sintesia ematera. Hori funtsezko argitalpen didaktiko osagarria gerta liteke, azkenean.

Bestalde, Unibertsitate-kanpoko ikasleentzako fitxategi bat ere, didaktikoki Irakaskuntza Ertainetatik hurbilagoa irakasleen beren eskuetatik jaino liteke, agiri hautatua bilduz, baina baita inguru historiko-historiografikoa gehituz, eta galdera eta ariketa-proposamenak luzatuz ere. Liburu honek halako zorterik balu, ez luke ezer galduko, eta eskolaren errealitate sozio-pedagogikotik hurbilago suertatuko litzateke.

3.3. *Euskararekikoak*

Aurkezten dugun argitalpena itzulpena dugu, gehienbat latinetik euskarara egin den itzulpena. Gai-mota guztietako testuak ditu, baina batez ere Ertaroko kronikarien eskuetatik datozkigunak. Unibertsitatean bertan, han-hemen egin diren agiri-itzulpen sakabanatuen ondoan, honek osotasun baten zentzua gorde du, hau da, Aro oso bateko literatura historiografikoa bildu du, osotasun horri ezagumendu-historiko orokor baten balioa emanez. Arestian esan dugun Proiektu orokor hark aurrera egingo balu, aberastasun osoagoa izango luke orduan guztiak.

Antzinate Berantiar eta Lehen Ertaroaren kasu honetan, Aro beteko latin-hizkera eskuetan hartu, eta testuen jite kultural propioari eutsiz euskararatzea erronka handia da normahirentzat ere, baina lehen saiorik egin gabe ez da hurrengo pausorik eman ahal izango. Ibilbide horren

(53) Koldo Larrañaga Elorza (Azkoitia, 1937), besteak beste, Deustuan, Bergarako UNEDen eta Gasteizko Irakasle-Eskolan irakasle izan da. Irakaskuntzan bezala ikerkuntzan 25 urtetatik gorako lana bete du. XVIII. euskal mendeaz berezitua, azken urteetan Antzinateari eta Lehen Ertaroari eskaini dizkio indarrak gehienak, eta, hain zuzen, bere doktore-tesia (1987) Erromatarren Euskal Herriko kolonikuntzari eskaini zion. Antzinate eta Lehen Ertaroko iturri literarioez aspaldidanik arduratua, bi liburuki argitaratuta bildu ditu berorietatik Euskal Herriaz ziotena. Kristautzearen historiari bereziki interesatua, horretan dihardu aspalditxotik. Ofizio eta zehaztasun garbiko historialaria, askatasun akademiko garbiz eraman du bere lanbidea.

barruan ikusten dut, ba, lan hau. Euskaraz hasi-berri ditugun molde honetako egitekoek ez dira samurrak, baina bai, sosegu eta lan-metodo egoki batekin, egingarriak (54).

Abia-hizkuntzan --kasu honetan, latinez-- emandako argi-iluntasun testualak eta horren ondorioz nahiz testuinguru historikoak sortutako interpretazio historiografikoak aintzakotzat hartuta egin da lan. Beraz, itzulpenzereginak aurretik, edo ondoan, historilariaren informazio bibliografiko ona eskatu du. Historilari adituaren ezagumenduen laguntzarekin kontatuz burutu behar izan da itzulpena: lehenik, zalantza testualen artean itzulpenetarako hautapena eginez, eta bigarren, testu finkatu erabakiaren, baina ez beti ulergarriaren ulerpen-zalantzak ahalik ongien gaindituz.

Hau dena, noski, honelako edizioaren “abc” oinarritzakoa da; baina, aitortu beharra daukagu, testuaren finkapen eta zehaztasun hauek zaindu gabe lan egin dugula euskal lanetan maizegi, genbiltzan lekuan gehiagorik lortzea ezinezkoa zelako ere bai. Liburu honen edizioak, gure honelako euskal lanen ohizko muga hertsiegiak zabaldu egiten dituela esan behar da, beraz. Abiahizkuntzako testuaren ulerpen ongi zaindutik hastea izan da lanaren lehen irizpidea.

Hel-hizkuntzari gagozkiola, euskarari alegia, bi eremutako hizkeramotak aipatu beharko lirateke. Bata, agirien itzulpenei dagokiena; eta bestea, historilariak bere gogoeta eta azalpen historiografikoetarako gaur egun erabil lezakeen hizkera, eta liburu honetan ere ageri dena.

Liburu honetan, betiere, testu ertarotarren itzulpengintza izan da egitekorik nagusia, eta hor —autoreak berak agertu dituen erreparatze alboraezinak ahortzi gabe (32. or.)— eman zaigun testua argia da, eta erabilgarria, honelako eskola-liburu batek nahitaez izan behar duen bezala. Dena den, jatorrizko testuak ondoan eman direnean (beste hizkuntzetan ere egin ohi denaren antzera), jatorrizko testua ere ondoan izatea premiazkoa ikusi delako izan da, hau da: itzulpena, egokia bai, baina behin baino gehiagotan edozein hizkuntzatan ere ez-askia gertatzen delako. Hala ere, hori ez da itzultzailea bere erantzukizunetatik libratzeko egin, autoreak adierazita utzi digunez (32. or.).

Onomastika historikoaren arazoa zaila gertatu zaie autore-itzultzaileei, eta lehen-lehenik berez delako halakoxea barruti hori: “logika” nahasikoa, historiografian aldakorra, eta euskarazko tradizio erudito edo kultural baten faltaz (edo eskasiaz, eta desberdinta-

(54) Hau esatean, Ertaro beranduagoko (XIII.eko) testuen eredu praktikoa bat gogoratuko nuke hemen: *Aita Frantzisko. Arreha Klara. Idazkiak* tituluarekin L. Villasante eta J.L. Zurutuza-ren eskutik kaleratu zena (1977: EFA. Arantzazu. Ik. gaztelaniazko edizio osoa: GUERRA, J.A. [1978]: *San Francisco de Asís. Escritos. Biografías. Documentos de la época*. Madrid: BAC). Hortik hasita, San Frantzisko Asisi-koaren obra osoa argitaratu ematean, Ertaroko testu erlijiosoetarako euskarazko zinezko eredu bat izan genezakeela espero liteke, berezilarientzat balio lezakeena, baina batez ere irakurle arruntarentzat jatorrizko hizkuntzari traizio egin gabe hurbila eta bizia izango den hizkuntz eredu. Erregistro horrek berak balio lezake agian, alor bakoitzari egokitu, beste histori eremuetarako ere.

sunagatik), gurean arrotza, gaurko moldeetan irentsezina izateraino. Bestalde, gaztelania/frantsesezko irtenbide kontrajarrien artean aurkitu da euskara, eta horrela aurkitzen da egun ere. Liburuan izendegirako irizpideek, nahiz asmatutako behin-behineko irtenbideek ez dituzte batere ase autoreak: “Kaos bat, azken finean [*baina kaos definitu bat, esango nuke nik*], eta makina bat kritika sorreraziko duena! Baina, kritikari huts zitalak alde batera utzirik, gai honetaz ezer finkorik edo helduagorik ekar lezakeena, lehenbaitlehen “enseiu hobeago baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera” animatuko nuke nik biziki, Axularren hitz batzuk glosatuz” (34.or.) (55).

Terminologiaren aldetik, erlijio-testuak gorabehera testu humanistikoetan euskaraz lar zaindu ez den horretan, liburuan barne-batasun bat eman zaio idatzitako guztiari, hautaturiko terminoak zernahitan nahasten ibili gabe, finkotasun bat bilatuz. Horrek ez du esan nahi, ordea, historilarien arteko terminologi tradizio laburrean, hemen eta inguruko beste hainbat lanetan batasun osorik lortuta gabiltzanik, nabariak baitira zalantzak, oro har, historiaz dihardutenen artean.

Baina onomastika- eta terminologi arazoetatik harago doan hizkera historiografiko moderno baten arazoa ere ageri da liburu honen orrialdeetan, eta alde horretatik sarrera-orrialdeak espreski aipatuta utzi nahiko nituzke (9-34. or.). Gaur egungo euskararen egoera, edo hobeki, hiztun-irakurleen hizkuntz egoera, daukaguna izanik, nola eman beharko genituzke gure testu historiografikoak?

K. Larrañagaren erdal testuak irakurri dituenak badaki haren luma, guztiz zaindua dena, zehatza, ñabarduraz betea, pausoz pauso pasarte luze-zabaletan emana. Kasu honetan itzultzailea saiatu da, jatorrizko testuaren egitura sintaktikoak eta esaldi-pasarteak beren borobiltasunean, osorik ematen. Azken itzulpen-emaitza, argia da, agian gure ohituretarako gogortxoia, baina egin beharko ditugun premiako saio-ahaleginen bidetik doana.

Obra honekin, Historiaren esparruan baliozko urrats berri bat ematen du hizkuntzak; Unibertsitatean euskaraz gutxitan betetako zereginetan mintzairari eremu serio bat irabazteko lanabes duin eta erantzulea da hau.

Ezagumendu historiko landurako nahiz legeriaren ulerpenerako, esate baterako (eta ez dira horiek bi eremu-adibide txar, biok ere), honelako eta antzeko tresnek erdaren bitartekaritza alboratzen dutenean izango du euskarak kultur errespetagarritasun hoberik.

4. OHARRAK LABURBILDUZ

Iruzkindu dugun liburu honek gure argitalpen historiografikoan artean zulo nabaria betetzen du: euskal historiaren testu-iturrien kasik erabateko hutsunea, dagokion barrutian. Euskarazko irakaskuntzan,

(55) Lehen enseiu orokor bat egina dago, dagoeneko, eta gogoan hartzekoa da, noski, saio sistematiko bezala: ELHUYAR (1992): *Munduko pertsona-izenak. Euskaraz emateko irizpideak eta izendegia*. Donostia: Elkar. Etorrizunean, Euskaltzaindiaren Onomastika-Batzordearen lanei ere begiratu beharko zaie irtenbide bateraturik eta tradizio finkatuagorik nahi baldin bada behintzat.

honelako eremutan izan ditzakegun goi-premiak ongi bete ditzake bilduma honek, bere ediziokaltateagatik eta euskarari eman dion erregistroagatik.

Besarkatzen duen epearen aldetik —Antzinate Berantiarra eta Lehen Ertaroa—, ukitu duen hau gure historiako unerik ezezagunena dela esan liteke; baina hainbat materiale guttiz barreiatuta zegoen, hala ere, eta alde horretatik ere biltze-lan hau onuragarria izango da, ikasleentzat ezezik irakasleentzat ere.

Gure historia osoaz garai batean abian jarritako asmo hura (Bergarako UNEDekoa, alegia), baliozko egitasmoa da, lehenbaitlehen burututa izatekoa; zoritxarrez, bere argitalpen-bidean jada etxe ezberdinetatik doan edo dagoen proiektua gertatu zaigu.

Eta gero, esandako guztia falta zaio proiektuari: Historiaurrea, Ertaroaren parte on bat, Aro Modernoa. Herri eta hizkuntza ezberdinetan ugarituz doazen honelako iturri-edizioen ondoan gure historiak ere merezi eta behar du beste hoinbesteko zerbait irakaskuntza eta interesatu guztientzat prestatutik izatea. Liburuki honen argitalpena aukera ona da hori gogoratzeko.

Orain egiten ez dena berehala eta geroago ere ezin ahantzia da alor honetan, Irakaskuntzaren Erreformen lanerako argitalpen-tresna hau eskuetan izan dezagun. Betiere, oraingo liburuki honen kalitateak gordez, eta sekula ez honen azpitik, egin den lana errespetagarria eta beharretara egokitua dela uste baitut.